



2011/2012ko LEKU-ALDATZE LEHIAKETA

Deialdiaren I. Eranskinaren 4.1 eta 4.2 ataletako kargu/funtzioak direla eta, pasa den lehiaketan emandako puntuen mantentze-aukerari buruzko argibideak:

4.1 eta 4.2 ataletako puntuazioa ez da lehiaketa honetara automatikoki pasatuko, beraz:

- 4.1 eta 4.2 ataletan ofizioz (*) konputatzen diren karguetako bat bete edo betetzen baduzu eta, halaber, pasa den urteko lehiaketako 2, 3, 4.3, 5 eta 6 ataletan emandako puntuekin ados bazaude, hauxe adierazi behar duzu: “2010/2011 lehiaketako puntuak mantendu”.
- 4.1 eta 4.2 ataletan ofizioz konputatzen EZ diren karguetako bat bete edo betetzen baduzu eta, halaber, pasa den urteko lehiaketako 2, 3, 4.3, 5 eta 6 ataletan emandako puntuekin ados bazaude, hauxe adierazi behar duzu: “2010/2011 lehiaketako puntuak mantendu” eta gainera, esandako 4.1 eta 4.2 atalei dagokien ziurtagiria aurkeztu behar duzu.

(*) Ofizioz konputatzen diren Euskal Autonomia Erkidegoko karguak:

- Zuzendaria eta zuzendari ondokoa.
- Idazkaria eta idazkari ondokoa.
- Ikasketa-burua eta Ikasketa-buru ondokoa.
- Zuzendariordea.
- Azpi-zuzendaria.
- Idazkariordea.
- Lanbide Heziketako idazkariordea.
- Gaueko ikasketa-burua.